



Usurbilgo Udala



**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2015EKO AZAROAREN 30EAN
GOIZEKO 11:00ETAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre.

Zinegotziak: Jone Urdanpilleta Urdanpilleta eta Alaitz Aizpurua Labaka.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Irene Garcia Palacios eta Josune Estella Arranz.

1.- 2015EKO URRIAREN 26KO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.

Batzarkideek, 2015eko urriaren 26ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- MARI JOSE ALTUNA ARTOLAK KALE NAGUSIA, 10 BEHEAN HAUNDITU
NAHI DUEN OKINDEGIARI ALDEKO INFORMEA EMATEA.**

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, MARI JOSE ALTUNA ARTOLA andereak Kale Nagusia, 10 behean haunditu nahi duen okindegiaren osasun-txostena helarazi du. Osasun-txostena ALDEKOA da.

ESPEDIENTE ZKIA: HZ.07/2015-0364
ESKATZAILEA: MARI JOSE ALTUNA ARTOLA
JARDUERA MOTA: Okindegia - haunditzea
NON KOKATUA: Kale Nagusia 10 behea / Usurbil

Udal arkitektoak, Jone Miner Aginaga andereak, ondoko txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
JARDUERA SAILKATUAK _____
OPIL GOXO S.L. OKINDEGIAREN JARDUERA HANDITZEKO
PROIEKTUARI TXOSTENA

KOKAPENA: Kale Nagusia, 10. Usurbil
ESKAERA DATA: 2015eko uztailaren 22a
ESKATZAILEA: Mari Jose Altuna Artola
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.07/2015-364

1.- AURREKARIAK



Usurbilgo Udala



- 2015eko uztailaren 22an Mari Jose Altuna Artolak Opil Goxo Okindegia handitu eta berritzeko Jarduera eta Obra Proiektua aurkeztu du.

Erlazionatuak:

- 1984ko Jarduera espedienteetako 141 zenbakia (artxiboko 151-3 espedienteak)
- 1997ko 341 zenbakia duen espedienteak (Sig. 0200-06)

2.- TXOSTENA

Mari Jose Altunak Opil Goxo Okindegiaren jarduera berritu eta handitzeko proiektua aurkeztu du. Eskaera orriarekin batera aurkeztu duen Jarduera eta Obra proiektuak honakoak barneratzen ditu: memoria, planoak, aurrekontua, baldintza plegua, segurtasun eta osasun azterlana, kalitate kontrol plana, hondakinen kudeaketarako azterlana eta ziurtagiri eta eranskinak. Guztia arkitektoak izenpetuta eta dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsi gabe dago. Teknikari gaituaren erantzukizun aitortpena ere aurkeztu da.

Txosten honen helburua da ezarri nahi den jarduera hirigintza arauen arabera kokapen horretan ematerik badagoen aztertzea.

Aurkeztu den Jarduera eta Obra Proiektuak gaur egungo okindegi jardueraren handitzea eta berritzea proposatzen du.

Handitu nahi den jarduera Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bategineko A-46 Sagastinea eremuan dago, egoitza erabilerako hiri lurzoruan, hain zuzen ere. Dagokion hirigintza fitxak honakoa jasotzen du eremu honetako erabileren inguruan:

"3- ERABILERA"

Merkataritza behe solairutan.

Garajea sotoan. Garaje plazen kopurua 39 UN

Egoitzazkoa goiko solairuetan. Bizitzen kopurua gutxi gora behera 35 UN"

Beraz, honakoa esan daiteke:

- **ERABILERA HIRIGINTZA IKUSPEGITIK:** A-46 Sagastinea Eremuan indarrean dagoen hirigintza fitxak merkataritza erabilera baimentzen du behe solairuan. Eta proiektuak proposatzen duena lehendik dagoen okindegi/kafetegi baten handitzea da. Beraz, **eman nahi den erabilera onargarria da kokapen horretan.**
- **JARDUERA SAILKATUA:** 7/2012 LEGEA, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Direktibara egokitze aldera zenbait lege aldatzeko-ak EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO INGURUGIROA BABESTEN DUEN OTSAILAREN 27KO



Usurbilgo Udala



3/1998 LEGE OROKORRA ALDATZEKO VIII. KAPITULUA-n dioen modura, jarduera sailkatutzat hartzen ditu eta jarduera baimenera bideratzen, besteak beste, II. Eranskineko A zatiko 6. puntuan jasotako jarduerak:

“6.- Hainbat tailer eta lantegi (aroztegiak, galdaragintza-tailerrak, muntaia-tailerrak, mekanizaziokoak, okindegiak, gozotegiak, cateringak...), baldin eta instalatutako potentzia totala (mekanikoa eta elektrikoa, argiarena kenduta) 25 kW-ekoa edo handiagoa bada eta ekoizpenerako azalera 300 m²-tik gorakoa bada.”

Beraz, aurkeztutako proiektuaren arabera okindegiaren instalatutako potentzia totala 25 kW-tik gorakoa denez, jarduera baimen hau jasotzeko **3/1998 Legeak eta hau aldatzen duen apirilaren 23ko 7/2012 Legeak jarduera sailkatuentzat zehazten duen prozedura jarraitu beharko da.** Udalak ezar ditzakeen baldintzen kalterik gabe, **Neurri Zuzentzaileak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Organoak ezarriko ditu.**

- **LUR KUTSATUAK 1/2005 LEGEA:** Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko, ezarritakoa bete beharri dagokionez hurrengoa adierazten da:

IHOBE S.A. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak egindako EAeko lurzoruaren polutzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioan, Mari Jose Altunak jarduera ezarri nahi duen lurzorua ez dago inbentariatua edo dokumentuan sartuta lur kutsatuak izan daitezkeen arriskuarekin.

- **OBRA BAIMENA:** Edonola, eraikina egokitzeko obrak egiteko dagokion baimena jaso beharko da; baimena eman aurretik jarduera baimena eduki beharko da.

3.- ONDORIOA

Usurbilgo hirigintza arauen arabera Opil Goxo Okindegiaren jardueraren handitzearen inguruan ALDEKO hirigintza txostena idazten da. Horrekin batera, esan beharra dago jarduera sailkatua izanik haientzat ezarritako izapidetza jarraitu beharko dela.

Azkenik, gogorarazten da, eraikina egokitzeko dagokion obra baimena jaso beharko dela, behin jarduera baimena jasotakoan.

Horixe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2015eko urriaren 6an.



Usurbilgo Udala



UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Jone Miner Aginaga

Udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: MARI JOSE ALTUNA ARTOLA andereak Kale Nagusia, 10 behean haunditu nahi duen okindegiari ALDEKO INFORMEA EMATEA, proposaturiko kokamendua eta gainerako ingurutzailak, egungo Planifikazio Urbanistikoekin eta Otsailaren 27ko Euskal Herriko Ingurugiroaren Babeserako 3/1998 Legeak xedatutakoarekin, ados daudelako.

BIGARRENA: Era berean informatu, kokalekuan eta bere inguruetan efektu gehigarriak sor lezakeen antzeko jarduerarik ez dela.

HIRUGARRENA: Erabakia eta Espediente osoa Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentura bidali dadila, Neurri Zuzentzaileak ezar ditzan.

3.- IGEPAK, S.A. ENPRESAK ZUMARTEGI INDUSTRIALDEKO LEGARDA 1 – AITZAZARRA 2 HELBIDEAN AEROSOLAK EKOIZTEKO ZABALDU NAHI DUEN JARDUERARI ALDEKO INFORMEA EMATEA.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, IGEPAK, S.A. enpresak Zumartegi industrialdeko Legarda 1 – Aitzazarra 2 helbidean aerosolak ekoizteko zabaldu nahi den jardueraren osasun-txostena helarazi du. Osasun-txostena ALDEKOA da.

ESPEDIENTE ZKIA: HZ.07/2014-0150

ESKATZAILEA: IGEPAK, S.A.

JARDUERA MOTA: Aerosolak ekoizteko jarduera zabaltzea

NON KOKATUA: Legarda 1 - Aitzazarra 2 / Zumartegi industrialdea

Udal arkitektoak, Jone Miner Aginaga andereak, ondoko txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA

Udal Teknikariak Alkate jaunari

JARDUERA SAILKATUAK

**IGEPAK ENPRESAK AITZAZARRA KALEA 4 PABILOIAN
JARDUERA EZARTZEKO PROIEKTUARI TXOSTENA**

KOKAPENA: Aitzazarra, 4. Zumartegi Industrialdea. Usurbil

ESKAERA DATA: 2014ko apirilaren 16a

ESKATZAILEA: Mauro Tenés Iturri, IGEPAK S.A.-ren izenean

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.07/2014-150

1.- AURREKARIAK



Usurbilgo Udala



- 2014ko apirilaren 16an ASMATU S.L.P. ingenieritzak IGEPAK enpresak Zumartegi Industrialdean duen jarduera handitzeko baimen eskaera egin du, honako proiektua aurkeztuz: "USURBILGO ZUMARTEGI INDUSTRIALDEKO IGEPAK-EN NABE BERRIAREN JARDUERA". Eta, egun berdinean nabea egokitzeko obra baimena eskatzeko proiektua ere aurkeztu du, "USURBILGO ZUMARTEGI INDUSTRIALDEKO IGEPAK-EN NABE BERRIAREN EGOKITZAPENA".
- 2014ko ekainaren 17an udal arkitektoak eta ingurumen udal teknikariak bertaratzea egin zute.
- 2014ko uztailaren 16an udal nekazaritza eta ingurumen teknikariaren txostena.
- 2014ko uztailaren 8an udal arkitektoaren txostena.

Erlazionatuak:

Tomo 361630- 1971. urtea. Solicitud de licencia municipal para el establecimiento de una industria destinada a la fabricación y envasado de AEROSOLES en el Polígono Industrial 24.

Zenb. 330/sig. 0199-01: Aitezarra kalea 2an Aerosolen ekoizketarako jarduera baimena.

- 1997ko ekainaren 17an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean iharduera ezartzeko eraikitze pabiloien lehen erabilera baimena eman zen.
- 2001ko ekainaren 12an Tokiko Gobernu batzordeak IGEPAK S.A. enpresak zumartegi Industrialdean Aitezarra kaleko 2an aerosolen ekoizpenerako jarritako iharduera irekitzeko udal baimena eman zuen.

HZ.07/2007-0067 – Aerosolak ekoizteko jarduera Aitezarra kalea, 4ko pabiloia zabaltzeko jarduera proiektua

- Eskaera data: 2007ko otsailaren 16.
- 2008-02-11: Baimena bertan behera uzteko eskaera eta Jarduera proiektu berria baimen berri bat eskatuz.
- 2008-07-29: Tokiko Gobernu Batzarrak jarduera ezartzeko baimena.
- 2009-02-24: Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia irekiera baimena emanaz.

HZ.04/2014-171 – Zumartegi Industrialdeko Aitezarra 4 pabiloia egokitzeko obra proiektua:

- 2014ko apirilaren 16an ASMATU S.L.P. ingenieritzak obra baimen eskaera aurkeztu du Udalean, IGEPAK S.A. enpresaren izenean; "PROYECTO DE ACONDICIONAMIENTO DE NUEVA NAVE DE IGEPAK, EN EL POLÍGONO INDUSTRIAL DE ZUMARTEGI, USURBIL".

HZ.01/2015-65 – Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen A-30 Zumartegi eremuaren antolamendu xehatuaren aldaketa



Usurbilgo Udala



- 2104ko abenduaren 10ean Mauro Tenés Iturri jaunak, Igepak enpresaren izenean, berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen.
- 2015eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu zuen:

“LEHENDABIZI: Tokiko Gobernu Batzarrak, 2014ko urriaren 17an aerosolak ekoizteko jarduera haunditu ahal izateko Zumartegi industrialdeko Aitezarra kalea 4ko pabiloia egokitzeko udal baimena ukatuz hartutako erabakiaren aurrean, IGEPAK, S.A. enpresak tartekatutako berraztertze errekurtsoa aintzat EZ hartzea.

BIGARRENA: Udal arkitektoak emandako txostenean adierazitako kontutan izanik, egungo jarduera finkatze aldera, hirigintza fitxaren aldaketa izapidetzeko dagokion dokumentazioa prestatu eta aurkezteko proposatzea IGEPAK, S.A. enpresari.”

(...)

- 2015eko otsailaren 10ean Mauro Tenés Iturri jaunak, Igepak enpresaren izenean, hirigintza fitxaren aldaketari dagokion dokumentazioa aurkeztu zuen, eta horren izapidetzea eta onartzea eskatu.
- 2015eko otsailaren 23an interesdunak, behean izenpetzen duen teknikariarekin eta udal aholkulari juridikoarekin bilera egin ondoren, dokumentazio berria aurkeztu du, eta horren izapidetzea eta onartzea eskatu.
- 2015eko otsailaren 24an udal arkitektoaren txostena.
- 2015eko martxoaren 31an Usurbilgo Udalbatza Plenoak HAAS A-30 Zumartegi eremuaren antolamendu xehatuaren aldaketa hasieraz onartu zuen.
- Iragarkiak: 2015-04-02 BERRIA, 2015-04-07 DV, 2015-04-08 GARA, 2015-04-10 GAO.
- 2015eko maiatzaren 21ean Usurbilgo Udalbatza Plenoak HAAS A-30 Zumartegi eremuaren antolamendu xehatuaren aldaketa behin betikoz onartu zuen
- Iragarkiak: 2015-06-09 BERRIA, DV eta GARA eta 2015-06-12 GAO

2.- TXOSTENA



Usurbilgo Udala



ASMATU S.L.P. ingenieritzak IGEPAK enpresaren izenean jarduera baimena eskatu du, enpresa horrek Usurbilgo Zumartegi industrialdean duen nabe berrira jarduera handitzeko. Eskaera orriarekin batera aurkeztu dokumentazioa da, Jarduera proiektua honakoak barneratzen dituena: memoria, planoak, suteen aurkako instalakuntza, produktuen fitxa teknikoak, makinariaren dokumentazio teknikoa, hondakin kudeatzaileen baimenak eta soinu azterlana, guztiak ingenieroak izenpetuak eta dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsi gabe. Teknikari gaituaren erantzukizun aitopenik ere ez da aurkeztu.

Txosten honen helburua da ezarri nahi den jarduera hirigintza arauen arabera kokapen horretan ematerik badagoen aztertzea.

Eskatzen den jarduera baimenaren inguruan, aurkeztu den Jarduera Proiektuak honakoa zehazten du:

“La empresa IGEPAK, S.A. centra su actividad en el desarrollo, formulación y envasado de productos en aerosol. La empresa desarrolla su actividad en tres pabellones que tiene en propiedad en el Polígono Industrial de Zumartegi, en Usurbil, siendo la sede principal la situada en Legarda kalea, 2. Las otras dos naves se sitúan en la calle Atzezarra, a ambos lados de la calle Osiña.

Con objeto de aumentar su capacidad productiva y mejorar el servicio que da a sus clientes, IGEPAK S.A. compra el pabellón anexo a uno de los que tiene en propiedad en la actualidad, concretamente la situada en la calle Atzezarra, en el edificio de San Miguel, de aproximadamente 1.800 m2. Con esta nueva adquisición, asimismo, se dejaría abierta la posibilidad de una futura reestructuración de sus plantas en el polígono de Zumartegi.” (Memoriaren 1. orria).

“- Planta baja de producción y almacenaje (...):

- Almacenaje (...)

- Zona de envasado (...)

-Zona de formulación: Es donde se mezclan las distintas materia primas que componen el producto a envasar (...)” (Memoriaren 3. orrian)

“3. ACTIVIDAD:

3.1. DESCRIPCIÓN DEL PROCESO INDUSTRIAL

La empresa IGEPAK, S.A. centra su actividad en el desarrollo, formulación y envasado de productos en aerosol para terceros.

Básicamente un aerosol está formado por los siguientes elementos:

*- **Envase:** puede ser de aluminio, hojalata o plástico a los cuales se le ha añadido una válvula-pulsador de plástico y como cierre un tapón de plástico.*

*- **Contenido:** es el producto que se envasa y se pulveriza. Puede ser de formulación (se mezclan los distintos principios activos y agentes intermedios antes de su envasado para obtener el producto) o bien de concentrado (una empresa ajena a IGEPAK proporciona su producto tal y como quiere que sea el envasado).*

*- **Propelente:** es un gas que provoca que el contenido salga al exterior cuando se oprime la válvula-pulsador.”*

“3.3. MAQUINARIA E INSTALACIONES:

(...)

Sala de formulación:

- Tanques atmosféricos o en vacío con agitadores para mezcla.



Usurbilgo Udala



Sala de envasado:

- Línea de envasado de aerosoles.
- Enfajadora vertical
- Precintadora de cajas.
- Máquina pesadora y módulo codificador pro inyección de tinta.”
(Memoriaren 6. orrian).

“ 3.6. PRODUCTOS QUÍMICOS.

Se prevé un espacio destinado a almacenamiento de productos químicos tales como diluyentes, aceites, perfumes y fragancias”.
(memoriaren 7. orrian).

2014ko uztailaren 16an udal arkitektoak idatzitako aurkako txosteean, besteak beste, honakoak jaso zituen teknikariak:

*“Beraz, orain eskatzen diren obrek aipatu jardueraren handitzea ezartzeko egokitzapena dira. Erabileraren inguruan, aurrekarietan azaldu bezala 2014ko uztailaren udal arkitektoak Jarduera baimena eskaerari AURKAKO hirigintza txostena idatzi zion, ezarri nahi den erabilera Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolamendurako Arau Subsidarioen Testu Bateginak finkatutakoaren kontra doalako. Ondorioz, **egokitzapen obra hauek ez dira baimengarriak, baimendu ezin daitekeen jarduera bat egokitzea helburu izanik (ikus txostena).**”*

Geroztik, ordea, Hiri Antolamenduko Arau Subsidarioen A-30 Zumartegi eremuaren antolamendu xehatuaren aldaketa izapidetu da. Aldaketa hau, aurrekarietan aipatu den bezala, 2015eko maiatzaren 21ean behin betikoz onartu zuen Usurbilgo Udalbatza Plenoak eta 2015eko ekainaren 9an Berrian, DV neta Garan eta 2015eko ekainaren 12an GAOn agitaratua izan zen.

Hala, aldaketaren ostean, honakoa dio hirigintza fitxak eremuko erabilerei buruz:

“3- ERABILERAK

Egungo erabilerak finkatzen dira, nagusia industrialia izanik, Atxega jauregiarena izan ezik. Eta ez da inolako jarduketarik onartuko leku itxietatik kanpo. Atxega jauregiaren erabilera merkatal-ostalaritza izango da.

Erabilera berriei dagokienez, araudi orokorraren 4.2 Atala izango da aplikagarria.”

Igepakek proposatzen duena lehendik finkatuta dagoen jarduera baten handitzea da, ez da jarduera berri bat ezartzea proposatzen. Beraz, honakoa esan daiteke:

- **ERABILERA HIRIGINTZA IKUSPEGITIK;** A-30 Zumartegi Eremuan indarrean dagoen hirigintza fitxak egungo erabilerak finkatu egiten direla jasotzen du. Eta orain proposatzen dena finkatutako jardueraren handitze bat da. Beraz, **eman nahi den erabilera onargarria da kokapen horretan.**
- **JARDUERA SAILKATUA;** 7/2012 LEGEA, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako



Usurbilgo Udala



Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Direktibara egokitze aldera zenbait lege aldatzeko-ak EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO INGURUGIROA BABESTEN DUEN OTSAILAREN 27KO 3/1998 LEGE OROKORRA ALDATZEKO VIII. KAPITULUA-n dioen modura, jarduera sailkatutzat hartzen ditu eta jarduera baimenera bideratzen, besteak beste, "4. Industriak oro har".

Beraz, IGEPAK enpresak aurkeztu duen jarduera baimen hau jasotzeko **3/1998 Legeak eta hau aldatzen duen apirilaren 23ko 7/2012 Legeak jarduera sailkatuentzat zehazten duen prozedura jarraitu beharko da.** Udalak ezar ditzakeen baldintzen kalterik gabe, **Neurri Zuzentzaileak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ezarriko ditu.**

- **OBRA BAIMENA:** Edonola, eraikina egokitzeko obrak egiteko dagokion baimena jaso beharko da; baimena eman aurretik jarduera baimena eduki beharko da.
- **LUR KUTSATUAK:** Udaleko ingurumen teknikariaren 2014ko uztailaren 16ko txostenera bideratzen da.
- **PROIEKTUEN INGURUMEN-INPAKTUAREN EBALUAZIOA:** batetik, otsailaren 27ko Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 3/1998 LEGEaren I. eranskineko B puntuan, Ingurugiroaren gaineko eraginaren banakako ebaluazioa egin behar duten lan eta jardueren zerrendan, Industria kimikorako instalazio-proiektuak azaltzen dira (8. puntuan). Bestetik, ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen arabera ere, jarduera honen anpliazioa ingurumen-ebaluazioa behar duten proiektuen artean egon liteke; zehazki esateko, I. eranskineko 5.taldean, "*Industria kimikoa, petrokimikoa, ehungintza eta papergintza*" aipatzen dira. Hortaz, **Eusko Jaurlaritzako ingurumen organoaren txostena eskatu behar da, aurkeztutako jardueraren handitze proiektuak ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar ote duen zehazteko.**

3.- ONDORIOA

Usurbilgo hirigintza arauen arabera Igepak enpresako jardueraren handitzearen inguruan **ALDEKO hirigintza txostena idazten da. Horrekin batera, esan beharra dago, batetik, Eusko Jaurlaritzako ingurumen organoak zehaztu beharko duela proiektuak ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar ote duen. Eta, bestetik, jarduera sailkatua izanik haiantzat ezarritako izapidetza jarraitu beharko dela.**

Horixe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.



Usurbilgo Udala



Usurbilen, 2015eko irailaren 24an.

UDAL ARKITEKTOA

Izta.: Jone Miner Aginaga

Ingurumen Teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, ondoko txostena eman zuen 2014ko uztailaren 16an:

IG2014_07_16

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
HIRIGINTZA KONTSULTA
IGEPAK ENPRESAK ZUMARTEGI INDUSTRIALDEAN DUEN
JARDUERA HANDITZEKO BAIMEN ESKAERARI INGURUMEN
TXOSTENA

KOKAPENA: Aitezarra 4, Zumartegi Industrialdea, Usurbil.
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ07/2014-150

AURREKARIAK

- 2014ko apirilaren 16an ASMATU S.L.P. ingenieritzak IGEPAK enpresak Zumartegi Industrialdean duen jarduera handitzeko baimen eskaera egin du, honako proiektua aurkeztuz: "USURBILGO ZUMARTEGI INSUTRIALDEKO IGEPAK-EN NABE BERRIAREN JARDUERA".
- 2014ko ekainaren 17an udal arkitektoak eta ingurumen udal teknikariak bertaratzea egin dute.
- Aipatu eremua, 2014ko martxoak 7ko Eusko Jaurlaritzako ingurumen eta lurralde politikako saileko ebazpenaren bidez, lurzorua kalitateari buruzko adierazpenaren prozedura abiatzetik salbuetsita geratzen da.

TXOSTENA eta ONDORIOAK

Ingurumenari dagokionez, Aitezarra 4 Zumartegi eremuan, baimendu daitekeen edozein jarduera ezartzeko, ez da beharrezkoa lurzorua kalitateari buruzko adierazpena abiatzea.

Usurbilen, 2014ko uztailaren 16an.
Nekazaritza eta ingurumen teknikaria
Izta.: Ibon Goikoetxea Retegi

Udal arkitektoaren eta ingurumen teknikariaren txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: IGEPAK, S.A. enpresak Zumartegi industrialdeko Legarda 1 – Aitezarra 2 helbidean eerosolak ekoizteko zabaldu nahi duen jarduerari ALDEKO



Usurbilgo Udala



INFORMEA EMATEA, proposaturiko kokamendua eta gainerako ingurutzailerak, egungo Planifikazio Urbanistikoekin eta Otsailaren 27ko Euskal Herriko Ingurugiroaren Babeserako 3/1998 Legeak xedatutakoarekin, ados daudelako.

BIGARRENA: Era berean informatu, kokalekuan eta bere inguruetan efektu gehigarriak sor lezakeen antzeko jarduerarik ez dela.

HIRUGARRENA: Erabakia eta Espediente osoa Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari bidali dadila, Neurri Zuzentzaileak ezar ditzan.

4.- LUIS OLASAGASTI ZUAZNABAR-I, AGINAGAKO GOROSTIDI BASERRIKO LURRETAN ERAIKITAKO IKUILUKO PATIOA ESTALTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

LUIS OLASAGASTI ZUAZNABAR jaunak aurkeztutako eskaera aztertu dut (Esp. Zenbakia: HZ.04/2015-0142). Bertan, Aginagako Gorostidi baserriko lurretan eraikitako ikuiluko patioa estaltzeko udal baimena eskatzen du, 309 m²-ko ikuiluari 150 m² gehituz.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, dagokion txostena eman du. Hitzez hitz honela dio:

03_IT2015_11_15

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
OBRA NAGUSIAK
AGINAGAKO GOROSTIDI BASERRIA IKUILUKO PATIOA
ESTALTZEKO BAIMENA

KOKAPENA: Gorostidi baserria, Usurbil
ESKAERA DATA: 2015eko azaroaren 17a.
ESKATZAILEA: Luis Olasagasti Zuaznabar
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ04/2015-0142
OBRA AMAIERAKO AURREKONTUA: **18.717,34 €**

1.- AURREKARIAK

2007ko abuztuak 8an Tokiko Gobernu Batzarrak ikuilua eraikitzeko baimena eman zuen. 2010eko abuztuak 24an berriz, lehen erabilera baimena eman zitzaion ikuiluari.

Interesatuak, 2015eko apirilak 8an ikuiluko patioa estaltzeko udal baimena eskatzen du 309m²ko ikuiluari 150m² gehituz.

Aldundiko Landa ingurunekeo sailak 2015eko azaroak 11an ALDEKO txostena igortzen du.

2.- AZTERKETA



Usurbilgo Udala



Interesatuak aurkeztutako eskaeran memoria, eranskinak, osasun eta segurtasun oinarritzko azterketa, hondakinen kudeaketa, kalitatea kontrolatzeko programa, baldintza agiria, aurrekontua eta planoak aurkeztu dira.

Egin nahi den zabalketaren helburua, lehen 17 behi buruntzako egindako ikuilua egun 27 behi bururentzat haunditzea da, interesatuaren nekazal jarduerak dedikazio partziala du, eta 1,19 N.L.U.

Eraikitze proiektua aztertuta ondorengoa esan daiteke.

- Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolaketako Arauak betetzea. Landa eremuko eraikinen inguruko baldintzak zehazten diren 53. artikuluko baldintzak betetzen ditu. (Altuera librea 3,6 m-koa izatea jardueraren ohiko lanetarako beharrezkoa delarik)
- Hondakinen kudeaketarako araudia. Exekuzioan 0,68 Tn hormigoi eta 0,1 Tn plastiko enbortorio aurreikusten dira. Proiektuaren baitan, hormigoi armaduraren hondakinak baserrian bertan erabiliko dira, eta plastikoak edukiontzietan bota.
 - x Hormigoi hondakinei dagokionez, berrerabilpena onartuko da, baina ezingo da inolaz ere betelanetarako erabili.
 - x Plastiko hondakinei dagokionez. Ez daude hondakin mota horiek jasotzeko edukiontzirik. Beraz hondakin mota hau egoki kudeatu delako ziurtagiria aurkeztu beharko da obra amaierako ziurtagirian.
- 515/2009 dekretua abeltzaintzako ustiatzietako arau teknikoak, higienniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituena. Sortutako minden kudeaketa araudira egokitzen da, eta horrela egiten dela ziurtatzen duen erregistro liburu eguneratua izan beharko da.
- Besteak. Txosten honetan zehazten ez den arren, indarrean den araudi aplikagarria betetzen ez duen ezaugarri/elementu/obra-ren bat barneratzen badu proiektuak, ezinbestean araudira egokitu beharko da, eta beraz, ez da txosten honetan inplizituko ontzat ematen.

3.- ONDORIOAK

Goian aipaturikoa jarraikiz, Gorostidiko ikuilua haunditzeko ALDEKO txostena idazten da, beti ere aipatu baldintzak betetzen diren artean.

Usurbilen, 2015eko azaroaren 17an.

Udal ingurumen teknikaria
Izta.: Ibon Goikoetxea Retegi



Usurbilgo Udala



Eskaria kontutan hartuz, Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariaren aldeko txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: LUIS OLASAGASTI ZUAZNABAR jaunari, Aginagako Gorostidi baserriko lurretan eraikitako ikuiluko patioa estaltzeko –309 m²-ko ikuiluari 150 m² gehituz– udal baimena ematea, ondorengo baldintza bereziak betetzekotan:

- AASStan Lur Ez Urbanizagarriko ezarritako xedapenak beteko dira. Arau Subsidiarioen 53. artikuluari dagozkion xedapenak bete beharko dira.
- Obra amaitutakoan, ekoizleak eraikuntza eta eraipen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dizkio Udalari.
- 515/2009 dekretua abeltzaintzako ustategietako arau teknikoak, higienniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen bete beharko da. Sortutako minden kudeaketa araudira egokitzen da, eta horrela egiten dela ziurtatzen duen erregistro liburu eguneratua izan beharko da.
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun neurriak beteko dira.
 - Obrak lizentzi ematen egunetik SEI HILABETEAN hasiko dira eta beste BI URTETAN bukatuko dira.

BIGARRENA: Aldez aurretik obrari dagokion udal zerga ordainduko da.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

5.- JOSE ANTONIO SEGUROLA ARREGIRI, LANDALURREKO KATASTROKO 4. POLIGONOKO 219. PARTZELAN BETELANAREN AURRETIKO AZPIEGITURAK (SOILIK) EGITEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Alkatearen kasuan, interesatuarekiko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. artikuluko abstentzio kausa egonik, ezin du bozketan parte hartu. Hori dela eta, quorum falta dagonez, puntu hau mahai gainean uztea erabaki da.



Usurbilgo Udala



6.- LASER KEN, S.A. ENPRESAK, HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO A-104 (ATALLU) EREMUAN, ATALLU INDUSTRIALDEKO 4. EXEKUZIO UNITATEAN, ARMAIDA KALEA 2AN, ERAIKI DUEN PABILOI INDUSTRIAL BERRIARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2014-0329

LASER KEN, S.A. enpresak egindako eskaera aztertu dut. Bertan, Atallu industrialdeko 4. exekuzio unitatean, Armaida kalea 2an, eraikitako pabiloi industrial berriaren lehen erabilera baimena eskatzen du.

Bertan, tailer mekanizatua ezarri nahi du LASER KEN, S.A. enpresak eta horretarako dagokion jarduera espedienteaz izapidetzen ari da dagoeneko.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2014ko abenduaren 18an egindako bilkuran, besteak beste, LASER KEN, S.A. enpresari Atallu industrialdeko 4. exekuzio unitatean pabiloi industrial berria eraikitzeke udal baimena ematea erabaki zuen.

LEHEN ERABILERA BAIMENA

2015eko irailaren 7an LASER KEN, S.A. enpresak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, eraikitako pabiloiaren lehen erabilera baimena eskatu du.

TXOSTEN TEKNIKOAK

Udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallus jaunak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2015eko azaroaren 5ean emandako txostenean ondokoa dio hitzez hitz: *“Usurbilgo Udal zerbitzuei dagozkien instalazioen lotuneak ikuskatu dira eta eskatutako baldintzak bete direla egiaztatzen da.”*

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Eziguren Azkune andereak, 2015eko azaroaren 19an emandako txostenean, besteak beste ondokoak jasotzen ditu:

**BULEGO TEKNIKOAK
Udal Teknikariak Alkate jaunari
OBRA HAUNDIAK**

**ATALLUKO 4. EXEKUZIO UNITATEAN LASERKEN PABILOIAREN
LEHEN ERABILERA BAIMEN ESKAERARI TXOSTENA**

KOKAPENA: 4. Exekuzio Unitatea. Atallu Industrialdea. Usurbil

ESKAERA DATA; 2015eko irailaren 7a

ESKATZAILEA; LASER KEN S.A. enpresa.

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2014-0329

EXEKUZIO PROIEKTUAREN AURREKONTUA: **942.150,03 €(PEM)**

OBRA AMAIERAKO AURREKONTUA: **988.040,23 €(PEM)**



Usurbilgo Udala



HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA: **18.605,77 €**

Fidantza (%120): **22.236,92 €**

(...)

- i. ... izanik, interesatuak 2014ko urriaren 16an aurkeztu zuen Exekuzio proiektuan 3000 m²-ko okupazioa planta zuen pabiloia aurkeztu zen, behe solairua, lehen solairua eta bigarren solairuko perfilarekin. Azken bi hauen azalera eraikia osotara 349,8 m²-koa izanik. Honen inguruan, Joxean Erasun udal arkitektoak emandako txostena kontutan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak obra baimena eman zion, aurrekarietan jaso bezala, 2014ko abenduaren 18an.

(...)

... honen inguruan, emandako baimena eta lehen erabilera baimenaren bideragarritasuna aztertzeko, dagokion txosten juridikoa eskatzen da.

- ii. OBRA AMAIERA ETA BERTARATZEA: Bertaratzean ikusi da obrak amaituta daudela, ez daudela erabileran eta obra amaierako planuetan jaso bezala egikaritu direla. Obra amaierako planuek, baimendu zen proiektuarekiko aldaketa esanguratsurik ez dutelarik.
- iii. SUTEAREN AURKAKO BABESA: Neurriak hartu dira eta ez dago eragozpenik, hala ere, Jarduera espedientearen baitan aurkeztu beharko dira gai honi dagozkion ziurtagiriak neurrien zehaztaperen sakonagoa eginaz. Edonola, ezinbestean bete eta mantendu beharko da indarrean den araudia.
- iv. ZERBITZUETAKO TXOSTENA: Aldekoa jaso da.
- v. OBRA AMAIERAKO LIKIDAZIOA: Aurkeztu den likidazioaren arabera, Exekuzio Proiektuarekiko igoera egon da obra amaieran, beraz, **Kontuhartzailletza Sailari jakinarazten zaio Obra Baimen tasaren egokitzapena egin beharko dela, obra amaierako likidazioa 988.040,23eurotako izanik.**
- vi. HONDAKINEN KUDEAKETARI DAGOKION FIDANTZA ITZULTZEA: Hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztu denez, **Kontuhartzailletza Sailari jakinarazten zaio Udalak jasotako fidantza itzul daitekeela.**
- vii. JARDUERA BAIMENA ETA JARDUERA EZARTZEA: **Ohartarazten da, jarduera ezartzeko ezinbestean Irekiera baimena jaso beharko dela.**

(...)

Usurbilen, 2015eko azaroaren 19an

UDAL ARKITEKTOA

Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

TXOSTEN JURIDIKOA



Usurbilgo Udala



Udal aholkulari juridikoak, ARAUDI S.L. taldeko Nekane Azarola Martínez andereak, espedienteko dokumentazio azertu ostean, 2015eko azaroaren 24an emandako txostenean, besteak beste ondorio hauek jaso ditu:

ATALLU 4.EXEKUZIO UNITATEAN LASERKEN ERAKINAREN LEHEN ERABILERA BAIMENARI BURUZKO TXOSTEN JURIDIKOA

(...)

Guzti hori dela eta, honako hau ondorioztatu daiteke:

1.- Egikaritutako obra bere egunean emandako obra baimenarekin eta Laseken-ek aurkeztutako proiektuarekin bat dator.

2.- Hirigintza planeamendua jarraiki eta kontuan harturik pabilioiak solairuko 3000 m2ko okupazioa duela, 1500 m2ko solairuarte bat eraikitzerik zegoen, baina horren ordez 349,80 m2 eraiki dituzte, bi solairuetan.

3.- Eraikina modu horretan eraiki da, ia pabilioi osoa okupatzen duen garabi zubi bat eraiki behar zelako.

4.- Eraikigarritasunari, erabilerari eta altuerari dagokionez, eraikinak udal hirigintza plangintzaren zehaztapenak betetzen ditu.

Aipatu guztiagatik, honako hau proposatzen dut:

Lehena.- LASER KEN S.A eraikitako pabilioiari lehen erabilera baimena ematea.

Segundo.- Eman daitezkeen gainerako baimenentzako, industrial eraikinen perfila argitasun osoz arautzea, Atalluko Plan Bereziaren aldaketa zehatz baten bidez.

Donostian, 2015eko azaroaren 24an.

Izp.- Nekane Azarola . Araudi SLP

Hirigintza arloko abokatua.

Gauzak horrela, udal teknikarien txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: LASER KEN, S.A. enpresak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-104 (Atallu) Eremuan, Atallu industrialdeko 4. exekuzio unitatean, Armaida kalea 2an, eraiki duen pabilioi industrial berriari lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.



Usurbilgo Udala



7.- 2015EKO KULTURAKO DIRU-LAGUNTZEN 2. ZATIA ORDAINTZEA.

Espedienteak: Jexux Artze Kultur Elkarte, Nafartarrak eta Kilometroak batzordea (KE.01/2015-0068), Etumeta Aek Euskaltea (KE.01/2015-0054), EHAZE (KE.01/2015-0065)

Ikusirik

2015eko otsailaren 3an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2015eko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, 2015eko kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza kopuruak behin betikoz onartu zituen.

Orain, diru-laguntza horiek modu honetara justifikatu dira:

Jexux Artze Kultur Elkarte, Nafartarrak eta Kilometroak batzordea

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
71. Barbao hamalau(bertan behera);Honen ordez Usurbilgo Kantu taldea kalejira eta Xiberoots	2.070,00 €	1.552,50 €	Gastuak: 1.700,00 2. zatia 1.700-1.552,50	147,50 €
Guztira				147,50 €

Etumeta Aek Euskaltea

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
26. Musikagintza	93,00 €	69,75 €	Gastuak: 90,00 Sarrera: 8,00 Guztira gastua: 82,00 25. ekintzako soberakina 11€ Gastuak guztira 93,00€	23,25 €
Guztira				23,25 €

EHAZE

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
59. Carbon Club	3.420,00 €	2.565,00 €	Gastuak:3.420,00€	855,00 €
60. Arrastoak-en ordez Jendartean bidaide	2.790,00 €	2.092,50 €	Gastuak: 5.044,57€ Sarrerak: 2.165,00€ Guztira gastuak: 2.879,57€	697,50 €
61. Topa	1.800,00 €	1.350,00 €	Gastuak: 2.370,20€	450,00 €



Usurbilgo Udala



Antzerkizale			Sarrerak: 105,00€ Guztira gastuak: 2.265,20€	
			Guztira	2.002,50 €

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru laguntzak arautzeko udal ordenantzaren aldaketa (GAO, 2008/07/01).
- 2015n kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2015/02/03).
- Kontu hartzailearen ziurtagiria

Hau guztia horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: Honako eskatzaileari kultura arloko diru-laguntzaren bigarren zatia ordaintzea:

Eskatzailea	Ekintza	Ordainketa
Jexux Artze Kultur Elkarte, Nafartarrak eta Kilometroak batzordea	71	147,50
Etumeta Aek Euskaltegia	26	23,25
EHAZE	59,60,61	2.002,50

Bigarrena: Kultura Alorreko diru-laguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4000.481.334.00.03 2015 (A 3/2015)

Hirugarrena: Interesatuari akordioaren berri emango zaio.

Laugarrena: Kontu-hartzailetzari akordioaren berri emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 11:20ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.